Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

# baikara

Donostia · Gipuzkoa

Noviembre 2014ko Azaroa



## 2015eko Ekainaren 7an, Euskal Eskola Publikoaren jaia, Elgoibarren



**DONOSTIA**

Diagnóstico sobre infancia, adolescencia y juventud



**GIPUZKOA**

Etwinning: Teknologia Berriak eta Europa zeharreko ikaskideak gelan

# 26.

OLERKIA

IPUINA

KOMIKIA

BERTSOA

MIKROIPUINAK

## Koldo Mitxelena

# LITERATURA LEHIAKETA 2015

8-18 urte bitartekoak

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Euskara Zerbitzua

EUSKARAREN HIRIA
DONOSTIA

IKUSI OINARRIAK HEMEN:
www.euskaraz.net

## donostia

04-08



**p. 4 Conciertos para escolares**

p.5 Donostia realiza su primer diagnóstico sobre infancia, adolescencia y juventud

Ikastetxeei zuzendutako 'Hemen da konposta!' egitasmoaren aurkezpena

p.6 Segunda edición de Hip-hip Urri! - October Children

Amara Berrik haur-eskola estreinatuko du

p.7 Familiekin jolasean

p.8 Breves-Laburrak

## gipuzkoa

09-14



**p. 9 Hamaika Kolore**

p.10-11 2015eko Ekainaren 7an, Euskal Eskola Publikoaren Jaia, Elgoibarren

p.12-13 Etwinning: Teknologia Berriak eta Europa zeharreko ikaskideak gelan

p.14 Festival de la Diversidad en Lasarte

p.15 Samaniego ikastetxea participa en Eskulturastea

p.6 Anuncio Fiesta Escuela Pública Vasca

## BAIKARA FEDERAZIOA

Es la Federación de Asociaciones de Madres y Padres (AMPAS) de los centros de la enseñanza pública no universitaria de Gipuzkoa. En la actualidad están asociadas a la Federación 156 AMPAS, lo que representa más del 93% del total de AMPAS de Gipuzkoa. Por ello **BAIKARA** es la representante y portavoz del colectivo mayoritario de madres y padres del alumnado de los centros públicos de Gipuzkoa, actuando como tal en las negociaciones y foros en los que se debate y deciden los diferentes aspectos que puedan afectar a la educación pública en Gipuzkoa.

Gipuzkoako ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako guraso elkarteen (IGEen) federazioa da. Gaur egun, 156 IGE dira Federazioko kide, hau da, Gipuzkoako IGEen %93 baino gehiago. Horregatik, **BAIKARA** da Gipuzkoako ikastetxe publikoetako ikasleen gurasoen ordezkari eta bozeramaile nagusia, eta hala jarduten du Gipuzkoako hezkuntza publikoan eragina izan dezaketen hainbat alderdi eztabaidatzen eta erabakitzen diren negoziazioetan eta eztabaidetan.

**www.baikara.org** **Baikaragurasoak** **@BaikaraF**

Foto de portada: Silvia Gaviola

**ARGITARATZAILEA:** BAIKARA FEDERAZIOA
Baso-Txiki Kalea, 36, atzealdea. 20015 Donostia. Tfno 943327208. Fax. 943274977.
e-mail: baikara@baikara.org / rosa@baikara.org

**Koordinatzailea:** Rosa Izquierdo. **Erredakzioa:** Elgoibarko ikastetxea, Orokieta (Zarautz), Sasoeta (Lasarte), Samaniego (Tolosa), San Andres (Eibar), Beasaingo Institutua. **Diseinua:** Ane Galdos eta Lorea Lozano. **Inprimatzailea:** SVP. **Lege gordailua:** ISSN 1697-9109

# CONCIERTOS PARA ESCOLARES

## En los meses de febrero, marzo y mayo en la sede de la Orquesta de Euskadi







Se trata de una actividad destinada a que niños, niñas y jóvenes estudiantes acudan a la sala de conciertos durante el horario escolar para escuchar a su Orquesta, siempre a través de propuestas especialmente diseñadas para ellos y ellas. El objetivo de este programa es acercar al público joven la música clásica en vivo, en especial la música sinfónica.

**10, 11 y 12 de febrero de 2015, "GALDUTAKO MUSIKAREN BILA", Concierto para piano, actor y marioneta.**

Este concierto pensado para la pequeña infancia (2-6 años) pretende introducirnos, a través del repertorio para piano y piano a cuatro manos, un actor y una marioneta, en el mundo fantástico de la música infantil.

**25, 26 y 27 de marzo de 2015, "EL PÁJARO DE FUEGO", Concierto Sinfónico.**

Dirigido al alumnado de Educación Primaria y Educación Secundaria (primer ciclo) "El Pájaro de Fuego", con música de Igor Stravinsky e interpretado por la OSE, es un cuento musical escrito por Carmen Santonja que será narrado en euskera por Belén Otxotorena

**5, 6 y 7 de mayo de 2015, "MÚSICOS Y BAILARINES… DE CINE", Concierto para Orquesta Sinfónica y grupo de claqué.**

Dirigido al alumnado de Educación Secundaria, este concierto nos guiará en paralelo por la historia de la música para cine del siglo XX y la historia del claqué. Los músicos de la orquesta darán vida a partituras a las que Larraitz Ugartemendia y su grupo XAFOL-K KLAKE TALDEA darán forma a través del baile.

# DONOSTIA REALIZA SU PRIMER DIAGNÓSTICO SOBRE INFANCIA, ADOLESCENCIA Y JUVENTUD

## La presentación pública del diagnóstico se hará en diciembre.



Casi una cuarta parte de los jóvenes donostiarras, de 16 a 30 años, considera “difícil o muy difícil” relacionarse entre sí y, al mismo tiempo, en esas edades siguen agrupándose en “cuadrillas”, divididas sobre todo según ideología o centro escolar.

Ésta es una de las muchas conclusiones del primer diagnóstico sobre infancia, adolescencia y juventud que realiza el Ayuntamiento de San Sebastián con el fin de obtener “una fotografía” de sus ciudadanos de 0 a 30 años desde numerosas perspectivas, como población, modelos familiares, tendencias, euskera, vivienda, mercado laboral, subvenciones, movilidad, deporte o asociacionismo.

La concejala de Juventud, Naiara Sampedro, y el coordinador de la investigación, de la cooperativa Aztiker, Asier Etxenike, han presentado el trabajo, que se ha llevado a cabo con la ayuda recibida por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa: 29.000 euros.

El informe, en el que han participado unas 650 personas, parte de datos estadísticos, entre los que destaca el envejecimiento de la población de San Sebastián, donde los menores de 30 años suponen el 26,9 % de la población, así como el hecho de que casi una cuarta parte de los donostiarras de 17 a 35 años “tiene su origen fuera de Euskal Herria”.

# IKASTETXEEI ZUZENDUTAKO ‘HEMEN DA KONPOSTA!’ EGITASMOAREN AURKEZPENA

## Kanpainak hiru aukera eskaintzen ditu jarduerak burutzeko

C Cristina Enea Fundazioak diseinatutako jolas eta jarduera didaktikoen bidez ikasleen artean sustatu nahi dira etxeetan hondakin organikoak bereizteko ohitura arduratsuak. Tailer honetan, modu dibertigarri eta didaktikoan, hondakin organikoen banaketa nola egin landuko da, bai eta keinu sinple honek ingurumenean dakartzan onurak ere. Jolas baten bidez, galdera, froga eta asmakizunak gainditu beharko dituzte ikasleek, gizarteak sortzen dituen hondakinekiko jarrera ohitura arduratsuagoak barneratuz.

Saioen iraupena 90 minutukoa izango da eta Lehen Hezkuntzako Bigarren Zikloko ikasleei (8-10 urte) zuzenduta dago.



### NON ETA NOLA PARTE HARTU

Kanpainak hiru aukera eskaintzen ditu jarduerak burutzeko:

1. Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxeko aretoetan, bertan erreserba eginez.

2. Eskolan, Cristina Eneako hezitzaileak bertara hurbilduko dira.

3. Cristina Eneako web orrian materiala deskargatu, nahi duenak bere kabuz eskolan egin ahal izateko.

Informazio gehiago eta material guztia eskuratzeko *www.cristinaenea.org*

# SEGUNDA EDICIÓN DE HIP-HIP URRI! OCTOBER CHILDREN

## Organizado por Ikertze con el patrocinio del Ayto. de Donostia (Sección de Educación) y Unión Europea

El viernes 26 de septiembre arrancó en Donostia/San Sebastián la primera edición de Hip-hip Urri!- October Children, una iniciativa que ya se celebró con éxito en otras ciudades europeas y cuyo objetivo es estimular el consumo de ocio cultural en familia.

Especialmente dirigido a niños y niñas de entre 6 y 14 años y sus familias, Hip-hip Urri!- October Children ofreció durante los cuatro fines de semana de octubre una amplia oferta de actividades gratuitas en 49 espacios culturales (tanto municipales como particulares) de Donostia, Gipuzkoa e Iparralde: talleres de arte, teatro, exposiciones, cine, visitas guiadas, naturaleza, gastronomía… Una variadísima oferta para disfrutar en familia.

**Film Workshop (29 de noviembre):**

Un taller en familia para crear un contenido audiovisual que recoja la opinión que los padres/madres tienen sobre el ocio y la cultura en paralelo con la de los niños y niñas.

Organiza: IKERTZE
Impulsado por: Donostia/San Sebastián 2016
Patrocinadores: Ayto. de Donostia (Sección de Educación) y Unión Europea







# AMARA BERRIK HAUR-ESKOLA ESTREINATUKO DU

## Guztira 34 haurrentzako tokia eskainiko du, hiru gelatan banatuta.

Amara Berriko haur-eskola 2015eko martxoan inauguratzekotan da, Haur-eskolak Kontsorzioak gestionaturik. Barkaiztegi kaleko udalaren lokaletan egongo da egoitza (lehen Katalin Erauso eskola publikoak erabiltzen zituen gela horiek). Hiru unitate edo gela izango ditu; bat 0-1 urteko haurrentzat (8 umeentzako tokia), eta bi 1-2 urtekoentzat (26 umeentzako tokia).

Amarak haur-eskola publiko berria izango du, hortaz, 0 eta 2 urte bitarteko haurrentzat, eta 34 umeentzako tokia izango du guztira.

Obra honek 238.670,64 €-ko aurrekontua du. Matrikula egin nahi duten pertsonek Hezkuntzako udal Saileko telefonora deitu behar dute. Hauxe da telefonoa: 943 48 33 84.

Matrikula egin nahi duten pertsonek www.haurreskolak.net web orrian aurkituko dute informazio gehiago.







# FAMILIAREKIN JOLASEAN

**Aiete, Amara, Bidebieta, Egia, Gros, Intxaurrondo eta Martuteneko haurtxokoetan larunbatetan 16:30etik 18:30era.**

Programa honen bitartez 6 eta 12 urte bitarteko haur eta gurasoek elkarrekin jolastu eta arratsalde dibertigarriak pasa ditzazuen nahi dugu, horretarako zuen esku jartzen ditugun bitarteko guztiekin.





| ABENDUAREN PROGRAMA | 7 | 13 | 20 |
|---|---|---|---|
| AIETE | | Altxorraren bila | Gabonetako apaingarriak |
| AMARA | | Gabonetako apaingarriak | Santo Tomas eguneko Jaialdia |
| BIDEBIETA | | Berrerabilpenaren Nazioarteko eguna: Olinpiadak, jokoa | Santo Tomas Feria, tailerra |
| EGIA | Neguko murala | Giza eskubideen Nazioarteko eguna: filma "Cómo entrenar a tu dragón" | Santo Tomas Eguna ospatzen |
| GROS | | Erakusketa "Jarri joko bat zure bizitzan" | Santo Tomas eguna familian ospatzen |
| INTXAURRONDO | | Diseina ezazu zure poltsa! | Gabonetako apaingarriak |
| MARTUTENE | | Wii "Sing Star" | Gabonetako sukaldaritza |

# BREVES / LABURRAK

## ARTEA ETA GIZA ESKUBIDEAK, HAUR ETA GAZTEEN 11. EKITALDIA

Donostiako Udalak, Giza Eskubideen atalaren bitartez, deitzen du, Artea eta Giza Eskubideak, Haur eta Gazteen 11. ekitaldian parte hartzera. Aurreko urteetan bezala, gonbita egin nahi zaie haur eta gazteei edozein marrazketa teknika erabiliz kultur aniztasunari buruzko ideiak adieraz ditzaten. Gai honen inguruan, desberdintasunarekiko errespetuaren eta elkartasunaren balioak landu ahal izango dira, berdintasunean oinarritutako elkarbizitzaren alde eginez.

Modu honetan, Donostiako Udalak ikastetxeei, haurtxokoei, gaztelekuei eta hiritar guztiei oro har deialdia egin die jarduera honetan aktiboki



elkarlanean jardun dezaten, haur eta gazteak parte hartzera animatuz eta bultzatuz, kultur aniztasunaren inguruan dituzten ideiak eta ametsak ager ditzaten. Horrela, haur eta gazteak animatzen ditu bere lanak Bakearen eta Giza Eskubideen Etxera, Aieteko Jauregira, bidal ditzaten 2015eko urtarrilaren 30 baino lehen, lanak herritar guztiek ezagut eta goza ditzaten.

Informazio gehiago
www.donostia.eus/gizaeskubideak

## INGURUMEN GINKANAK DONOSTIAN

Donostiako Udaleko Gazteriaren Atalak, Surfrider Foundation-ekin batera, "Ingurumen Ginkanak Donostian" izeneko proiektua aurrera eramango du azaroan zehar Groseko Udal Haurtxokoan eta Amarako udal Gaztelekuan.

Amarako Gaztelekuan, azaroaren 13, 20 eta 26an eta abenduaren 4an, arratsaldez, 13 eta 17 urte bitarteko nerabeek 4 saiotan zehar, Aldaketa Klimatikoak itsasertzean duen eraginaz arituko dira. Eta hirugarren eta laugarren saioetan nerabeek ZazpiT'erdi ikus-entzuneko ekoizpen etxearekin batera eta Surfrideren laguntzarekin, Donostian zehar kale inkesta bat egingo dute hiritarrek aldaketa klimatikoaren eraginei buruz dituzten iritzi, kritika, gomendio eta hobekuntzak bideo kamerekin grabatuz.



## VIII CONCURSO INFANTIL DE DIBUJO "DBUS ETA GABONAK"

Dbus y el Mercado San Martín han organizado el concurso de dibujo para niños y niñas "Dbus eta Gabonak" 2014.

Además de incentivar la creatividad de las niñas y los niños, con el concurso se pretende transmitirles la importancia del uso del transporte público en San Sebastián, para garantizar la sostenibilidad de los espacios urbanos y la calidad de vida de sus ciudadanos y ciudadanas. La Navidad es precisamente un período en el que la utilización del transporte público es fundamental para garantizar una movilidad eficiente.

Los participantes pueden ser todos los niños y niñas con edades menores de 13 años y deberán realizar un dibujo que




será libre y en el que sólo es necesario incluir alguna idea de la Navidad y relacionarla con el autobús.

Para más información, consulta nuestra web en www.dbus.es o contacta con nosotros en el teléfono 943 000 200.

## CURSOS DE EUSKARA PARA MADRES Y PADRES



El objetivo principal de estos cursos es acercar el euskera a las madres y padres que desconocen la lengua, y en el caso de aquellos y aquellas que lo hablan, darles la oportunidad de mejorar su nivel. La actividad se dirige preferentemente a las familias de niños y niñas de 2 a 7 años.

Las clases se organizan de la mano del centro escolar o de su AMPA, con la ayuda de un euskaltegi.

Características generales del curso

Duración:
60 horas, octubre-mayo

Ritmo:
2/3 horas semanales

Horario:
en manos del centro escolar

Grupos:
9-15 alumnos/as

Precio del curso:
60 €

# familia+eskola=ni$^x$

idatzi edo/eta marraztu familian egitea gustatzen zaizuna+eskolan ikasi eta egiten duzuna. biak batzerakoan zer egiteko gai zaren marraztu edo/eta idatzi. Ondo pasa!

[familia]

+

[eskola]



ni$^x$

baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa
k sustatzailea

# 2015EKO EKAINAREN 7AN, EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA, ELGOIBARREN.





Dakizuenez, erleak behar-beharrezkoak dira gure ekosistemaren biziraupenerako. Halaxe gertatzen da HEZKUNTZArekin ere! Gure GIZARTEAREN BIZIRAUPEN ETA GARAPENERAKO behar-beharrezkoak ditugu gure eskolak, GUZTION EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAK!

Erleak talde lanean aritzen diren bezala, guk geuk ere, gure eskolan, Elgoibarko Herri Eskolan, ELKARLANEAN dihardugu. Ikasle, irakasle, eskolako gainontzeko langile eta gurasook elkarrekin jotzen dugu aurrera!

EUSKARAZ, EUSKARAREKIN eta EUSKARARENTZAT lan egiten dugun EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAK gara! Eskola publiko ASKOTARIKO eta ABERATSGARRIAK!

Beraz, adi egon! Jata, gure erlea, leku askotan agertuko da eta! Deitzen bazaituzte, jarrai iezaiozue! Ez zaizue damutuko!





# ¡EL 7 DE JUNIO DE 2015, NOS VEMOS EN ELGOIBAR, EN LA FIESTA DE LA ESCUELA PÚBLICA VASCA!

Sabemos que las abejas son imprescindibles para la supervivencia del ecosistema. Eso mismo sucede con nuestra educación. La ESCUELA PÚBLICA VASCA es completamente necesaria para la SUPERVIVENCIA y DESARROLLO de nuestra sociedad.

Igual que hacen las abejas, nos organizamos y trabajamos en equipo: profesorado, alumnado, padres y madres y otros/as profesionales de la escuela, formamos Elgoibarko Herri Eskola.

Y contigo, aún somos más, contigo somos LA ESCUELA PÚBLICA VASCA, la escuela para todos y para todas, la escuela que crece y se enriquece gracias a ti. La escuela que trabaja en EUSKERA, por el EUSKERA y para el EUSKERA.

Jata, nuestra mascota es una abeja diferente, divertida y multicolor. Puede que algún día recibas su visita. ¡Acompaña a Jata, te lo pasarás muy bien!

Gustatzen jaku Euskal Eskola Publikoa!
Gustatzen jaku eskola euskalduna eta irekia!
Gustatzen jaku guztiona, eta guztiontzat den Elgoibarko Herri Eskola!





# ETWINNING: TEKNOLOGIA BERRIAK ETA EUROPA ZEHARREKO IKASKIDEAK GELAN

**Proiektuari bukaera emateko, bertan parte hartu zuten ikasle eta irakasle guztiak Zarautzen bildu ziren maiatzaren 30ean**





Europar Batasunak estatu ezberdinetako ikasle eta irakasleen arteko elkarlana bultzatzeko plataforma digital seguru bat jarri zuen martxan duela urte batzuk. Plataforma honetan lan egin ahal izateko, gutxienez, Europako bi estatu ezberdinetako eskolak hartu behar dute parte proiektu berean. 2013-2014 ikasturtean Hego eta Ipar Euskal Herriko 5 eskola publiko izan dira lehenengo aldiz etwinning bitartez euskara hutsean proiektu bat burutu dutenak.



Hegoaldeko Orokieta (Zarautz), Aiete (Donostia), Zaldupe (Ondarru), Iparraldeko Uhanderea (Getaria) eta Jean Verdun (Hazparne) Herri Eskoletako ikasle eta irakasleak elkarlanean aritu ziren 5 hilabetez, teknologia berriek ematen duten aukera erabiliz eta “Gure Herria Ezagutzen” izenburuko proiektuan.

Proiektu honen helburuak norberaren herria eta kultura ondarea ezagutu eta baliosteaz gain, Euskal Herriko herrialde ezberdinetako umeen arteko harremanak sustatzea eta teknologia berrien bitarteko komunikazio ekintzetan euskara erabiltzeari bidea irekitzea izan ziren.

Bost hilabeteetako lanaren ondoren, denen artean sortutako Done Jakue Bideak Euskal Herrian mapa digitala publikatu zuten. Mapa hau denentzat dago ikusgai http://goo.gl/wyZ9K6 web helbidean.

Proiektuari bukaera emateko, bertan parte hartu zuten ikasle eta irakasle guztiak Zarautzen bildu ziren maiatzaren 30ean. Modu honetan, ikaskide digital izandakoak aurrez aurre ezagutzeko parada izan zuten.

Ildo beretik, proiektu horretan lanean aritu zen Orokieta Herri Eskolako irakasle batek, Arrate Ugaldek, irailaren 18-19an Bruselaseko Future Classroom Lab-en (Etorkizuneko Ikasgelatarako Laborategian) Ikasgela Interaktiboa izenburupean burututako ikastaroan parte hartu du. Ikastaro honetan ikasleen arteko kolaborazioa eta interakzioa indartzeko erabil daitezkeen software ezberdinak maneiatu ditu. Programa eta tresna digital berriak eta horien aplikazioak gelan ezagutzeaz gain, Europako herrialde ezberdinetako hainbat irakaslerekin esperientziak trukatzeko aukera izan du.

Zarautzen bueltan, ikasitakoa Orokietako geletan erabiltzeko eta egindako kontaktuekin proiektu berri bat martxan jartzeko pausoak emateari ekin diote dagoeneko.

# FESTIVAL DE LA DIVERSIDAD EN LASARTE





## La multiculturalidad centró los actos organizados por el AMPA de Sasoeta-Zumaburu

Sasoeta-Zumaburu ikastetxea celebró a finales del mes pasado la segunda edición del 'Festival de la Diversidad' con un amplio abanico de actividades, reflejo de la multiculturalidad que impera en el centro. Hubo deporte, bailes, gastronomía y música, todo ello con procedencias diferentes lo cual sirvió para enriquecer la jornada y hacer de ese día un referente en el calendario escolar del centro lasartearra.











# SAMANIEGO IKASTETXEA PARTICIPA EN ESKULTURASTEA

## Se trataba de la segunda edición, organizada por el CIT de Tolosa

Niñas, niños y jóvenes tolosarras participaron hace un mes en la segunda edición de Eskultur Astea, una iniciativa llevada a cabo desde el CIT de Tolosa. Trescientos estudiantes de primaria y secundaria, entre ellos el alumnado de Samaniego ikastetxea, emplearon una mañana en pintar sendos murales en acero y metacrilato dentro del homenaje de Tolosa a Iñaki Epelde, recientemente fallecido y uno de los motores de Eskulturastea.

El resultado se instalará en un lugar público: el mural de acero cortén, en Berazubi, el barrio de Epelde y el metacrilato en un pasaje público. La abstracción predominó entre el alumnado de Secundaria mientras que los más pequeños-as disfrutaron pintando árboles sobre metacrilato.



EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN
24. JAIA
ELGOIBARREN
2015eko
EKAINAREN 7an




www.euskaleskolapublikoarenjaia.org

Euskal Eskola Publikoaren Jaia

ehige
gurasoen elkartea